

Europako Banku Agintaritzaren (EBA) gardentasun txostenaren arabera

Kutxabankek bere egoera sendotu du eta banku kaudimendunena da

- % 18,27 CET1 (phased-in) ratioarekin, sektoreko liderra da eta Europako batez bestekoaren gainera dago
- Kaudimen-ratioan bezala, hamargarren urtez jarraian palanka-efektuko tarterik onena duen bankua izaten jarraitzen du (% 8,06). Gainera, berankortasun ratio (% 1,33), eta eraginkortasun-ratio onena duen entitatea da (% 35,97).

2024ko azaroaren 29a. Kutxabankek bere posizioa sendotu du eta kaudimen handiena duen bankua da, % 18,27ko CET1 (phased-in) ratioarekin; hori Europako sektorearen kaudimen, eraginkortasun, palanka-efektu eta berandutza ratioetan oinarrituta, Europako Banku Agintaritzak (EBA) urtero egiten duen Gardentasun* Txostenaren arabera. Gainera, kaudimen-ratio horrek Europako batez bestekoaren gainera jartzen du Kutxabank.

CET1 fully loaded ratioaren kasuan (kapitalaren kalkulua, zenbaketa iragankorraren arauak kontuan hartu gabe), % 18,21era iristen da, eta gainbegiratutako bankan lehen postuari eusten dio.

Kaudimen-ratioan bezala, hamargarren urtez jarraian palanka-efektuko tarterik onena duen bankua izaten jarraitzen du (% 8,06). Europako Banku Agintaritzaren txostenak agerian uzten du, halaber, Kutxabankek lidergoa duela bankuaren aktiboen kalitatea neurtzen duten beste adierazle batzuetan.

Hala, berandutze-ratio txikiena duen entitatea da (% 1,33), 156 oinarrizko puntu (op) sektoreko batez bestekoaren azpitik (% 2,89). Kutxabankek iaz ABEn Gardentasun Txostenean lortu zuen posizioa errepikatu du, efizientzia-ratioaren arabera banku onena baita, aurten % 35,97rekin.

Kutxabanken negozio-ereduaren sendotasuna honako hauetan ere islatzen da: errentagarritasunaren hobekuntzan, merkatu-arriskuan, kredituekiko eta arrisku subiranoarekiko esposizioetan, zalantzazko saldoetan eta birfinantzatutako esposizioetan.

***Erreferentziazko gardentasun-ariketa EBn**

EBAn Gainbegiratze Batzordeak EBn gardentasun-ariketarako paketea onartu zuen. Urtero egiten du 2016tik, eta Arriskuen Ebaluazio Txostenarekin (AET) batera argitaratzen du. Urteko gardentasun-ariketa aplikazio-moduari eta -eremuari buruzko COREP/FINREP datuetan soilik oinarritzen da, merkatuan parte hartzen dutenei informazio-maila nahikoa eta egokia bermatzeko. Urtero bezala, inprimakiak modu zentralizatuan betetzen ditu EBak, eta, ondoren, erakundeei eta gainbegiratze-arduradunei bidaltzen dizkie, egiazta ditzaten. Bankuek aukera izan dute akatsak eta datuak zuzentzeko, aldizkako informazio-kanalen bidez, gainbegiratze-ondorioetarako, bai eta informazio espezifikoa gehitzeko ere datu indibidualak argitze aldera.